

MATERIALISMO HISTERIKOA

Beldurra?



UXUE APAOLAZA LARREA

Orain, beldurra ematen du zenbait txantxa egiteak. Ez dago umorerik. Berehala mintzen dira. Ezin da jakin larrua noiz jo daitekeen ere. Orain ezin zaio pertsona bati neska edo mutila dela esan. Zenbat txiste ezin dira egin! Jatorriari buruzkoak, joera sexualari buruzkoak, potoloei buruzkoak, totelei buruzkoak, herrenei buruzkoak... Okerrena ez da txantxetarako esparrua esutzea, okerrena da eztabaida batzuk tabu bihurtu direla, ezin dira planteatu ere.

Ezintasun horien erantzule izaten da feminismoa, antiarrazismoa, kolektibo batzuen azal fina (LGTBIQ+, pentsa, zenbat hizki inor ez mintzeko), mota guztietako haurren gurasoak, politikoki zuzenaren defendatzaileak, eta, nola ez, ezker *buenista*.

Esango nuke, noizbait, pribilejioren baten abaroan bizi garen edonori gertatu zaigula, duintasunen baten defentsa gure eskubideren baten aurkakotzat hartzea, aulkian ezinegonez mugitzea, diskurtsoren bat eratzen hasi eta barruan zimikoren bat sentitzea. Zimiko horri kasu egin, eta ikustea, mina ez genuela eskubide batean sentitzen, pribilejio batean baizik.

Gai batzuk tabu bilakatzea lorpen bat da; eskubideak kentzeari buruzkoak, adibidez. Ez dago gaizki eztabaida bat tabu izatetik zuzendariari gutunetara eraman aurretik, galdetzea ea zergatik dabilen ezker *buenista* hain kontuz gai batzuk eztabaida publikora ateratzeko garaian. Kezkatzea ez soilik zure beldurtxoaz, baizik baita beste aldean zuk zeuk sortzen dituzun amesgaiztoez ere. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

ATSOTITZA:

"AUZO BERRIAN ERE MISERABLE ZAHARRAK"



Kutsadura

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak Zubietako Erraustegiaren azpiko aldetik pasatzen den Arkaitzerrekako ur zikin kutsatu guztia errekatik atera eta saneamendu sistemara eramateko baimena eskatu dio Ura agentziari. Ur hori Zurriolako hondartzaren inguruan aterako litzateke.

Selekzioa

Espainiako selekzioaren deialdiei uko egiten dieten kirolari eta klubak zigortuko ditu Kirol Lege berriak. Orain arte, selekzioarekin lehiatzeari ezezkua ematen zion kirolariak zigorra zuen, baina lege berriak klubak ere zigortuko ditu. 2 eta 15 urte bitartez federazio lizentzia galtzea ekar liezaieke.

Laborantza

Euskal Herria Zuzenean elkartek (EHZ) erabaki du aurtengo edizioko etekinetatik 15.000 euro ematea laborantza lurren defentsan lan egiten duen Lurzaindia elkarteari. Sortu zenetik, EHZren helburuetako bat da balore komunak partekatzen dituzten mugimendu sozialak sostengatzea.